

## **GARAPENERAKO ESTRATEGIA POSITIBOEN XIII. JARDUNALDIAK** *Generoa ekintza humanitarioan: nola bihurtu gure konpromisoa errealitate*

### **HIZLARIEN/ESPERIENTZIA PARTE-HARTZAILEEN INFORMAZIOA**

#### **ISADORA QUAY – Nazioarteko CARE**

[www.care-international.org](http://www.care-international.org)

**Isadora Quay** CARE International erakundeko ekintza humanitarioko genero-berdintasunaren munduko arduraduna da. 2013an, "Genero Azterketa Azkarra" izeneko tresna sortu zuen; ordutik, 90 erakundek baino gehiagok erabili dute tresna hori 60 herrialdetan. Isadora emakumeen lidergoaren zale amorratua da. *Women Lead in Emergencies* ekimen globala sortu eta zuzentzen du. Genero Berdintasunari buruzko Masterra du, Garapenaren Ikasketen Institutuan egina (Erresuma Batua).

**CARE International** erakunde humanitario liderra da munduko pobrezia-aren aurkako borrokan, 1945ean sortua. Zazpi hamarkada baino gehiagoko esperientzia du pertsonen hondamendi humanitarioei aurre egiten laguntzen, krisi bat gertatzen denean bizi-laguntza ematen eta larrialdia gaitzitu ondoren komunitateei suspertzen laguntzen. Arreta berezia eskaintzen die emakumei eta haurrei, hondamendiek neurritz kanpo eragiten baitiete horiei.

#### **XIMENA ECHEVERRIA MAGARIÑOS – Nazioarteko CARE**

[www.care-international.org](http://www.care-international.org)

**Ximena Echeverria** boliviarra da, eta 20 urteko esperientzia profesionala du, toki-mailan nahiz nazioartean, plangintza estrategikoan, kalitate programatikoan, monitorizazioan eta ebaluzioan, ikaskuntzan eta inpaktuaren neurketan eremu humanitarioan edo epe luzeko garapenean, nazioarteko GKEekin, sektore publikoarekin eta erakunde pribatuekin. Gaur egun, Monitorizazio eta Ebaluzio Koordinatzailea da CARE Internacional erakundeko Idazkaritzaren bulegoan. Bertan, CARE Konfederazioari laguntzen dio ikuspegi, sistema, metrika eta tresna komunak definitzen eta operazionalizatzen, CAREren eta bere bazkideen lanak pertsonen kolektiboaren bizitzan aldaketa positiboak eta iraunkorrak eragiten dituela erakusten duten ebidentziak sortzeko, eta ebidentzia horiek erabakiak hartzeko prozesuekin eta garapen-prozesuekin lotzeko.

**CARE International** 16 erakunde kideko konfederazioa da, eta, erakunde bazkideekin batera, laguntza humanitarioaren arloan lan egiten du. CAREko Idazkaritzaren Bulegoak koordinazioa eta laguntza eskaintzen die bere kideei, gobernagarritasuna, plangintza estrategikoa, erantzun humanitario koordinatua eta kalitate programatikoa bezalako arloetan. CAREk bere lan guztiaren erdigunean kokatzen du generoaren ikuspegia, eta aitortzen du pobrezia edo injustizia soziala ezin izango dela gaitzitu pertsona guztiak eskubide eta aukera berdinak izan arte, bereziki emakumeek eta neskatuek.

## MIREIA CANO – CANO Gender Solutions

**Mireia Cano** genero-aholkularia da, eta 15 urte baino gehiagoko esperientzia du Nazio Batuetako agentzietan, GKEetan eta gobernu-agentzietan. Ibilbide luzea du emakumeak eta bake-prozesuak bezalako gaietan -Kolonbiako Bake Prozesuko genero-arloko aholkularia izan da Norvegiako Kanpo Arazoetako Ministerioarentzat-, eta, gaur egun, aholku ematen du Gatazkak Konpontzeko Norvegiako Zentroan bakea finkatzeko prozesuetan genero-ikuspegia txertatzearen inguruan. Genero-ebaluazio ugari zuzendu ditu, besteak beste, Ekintza Humanitarioko Genero Berdintasunaren Agentziarteko Gaikako Lehen Ebaluazioa. Auditoria gisa, Hagako Nazioarteko Zigor Auzitegiko Prozedura Dibisioaren Genero Auditorian parte hartu du. Halaber, aholkulari gisa esperientzia du genero-politiketan eta garapen-estrategietan, bai eta genero-gaietan trebatzaile gisa ere.

**CANO Gender Solutions** aholkularitza-enpresaren sortzaile eta aholkulari nagusia da, eta genero-kontuei buruzko aholkularitza-zerbitzuak ematen dizkie Nazio Batuetako agentziei eta nazioarteko eta Norvegiako GKEei.

## LUISA MARÍA VEGA CORREA – CARE Kolonbia

<https://care-colombia.org/>

**Luisa María Vega** abokatu feminista da eta 11 urte baino gehiagoko esperientzia du Giza Eskubideen defentsan, sustapenean eta bermean, batez ere emakumeekin, haurrekin eta LGBTBI+ herritarrekin loturik. Garapen eta erantzun humanitarioko programak koordinatu eta inplementatu ditu gatazka armatuak eta, berriki, Kolonbiako migrazio-fluxu mistoek eragindako krisi-egoeretan, ekintza-esparruetan genero-ikuspegia egiaz aintzat hartzen dela bermatuz. Gaur egun, CARE Colombia erakundeko programa-kudeatzailea da.

**CARE Colombia** erakundeak krisiari erantzun humanitarioa ematea du xede, Sexu eta Ugalketa Osasuneko eta Babeseko programen bidez, prebentzioa, arriskuak arintzea eta generoan oinarritutako indarkeriari erantzutea ardatz hartuta. Era berean, ahalduntze ekonomikorako, emakumeen bizi- eta ahots-bitartekoak eta lidergoa bultzatzeko ekintzak jarri dituzte abian. Genero-ikuspegia, erresilientzia- eta lokalizazio-ikuspegia txertatzen direla bermatzea da haren ikuspegi nagusien oinarria.

## CRISTINA CHURRUCA MUGURUZA - NOHA Masterreko Zuzendaria

<https://www.deusto.es/es/inicio/estudia/estudios/master-universitario/accion-internacional-humanitaria>

**Cristina Churruc**a Deustuko Unibertsitateko Giza Eskubideen Institutuko irakasle eta ikertzailea da, Nazioarteko Ekintza Humanitarioko Erasmus Mundus Masterraren koordinatzailea (NOHA) eta Masterraren zuzendaria 2007tik. Bere ikerketa-arlo nagusiak giza segurtasuna dira, bereziki lekualdatuaren babesa, eta ekintza humanitarioko egungo joerak eta erronkak. Azken hogeitau urteetan nazioarteko ikerketa-proiektuetan parte hartu du (FRAME, PRUV, Peace-Training.eu.) eta unibertsitate-sareak, ikerketa-zentroak eta gizarte-eragileak eta sektore humanitarioa profesionalizatzeko ekimenak. Gaur egun, Humanitarian Diplomacy proiektuan parte hartzen du, Norvegiako Ikerketa Kontseiluaren laguntzarekin.

**Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua** erakunde akademikoa da, 1997an sortua eta Deustuko Unibertsitateari lotua. Bere izateko arrazoi nagusia giza eskubideen kulturaren alde lan egitea da, unibertsitatearen ikuspegitik, eta gizarte eta nazioarteko bokazio nabarmenarekin. Gaur egun, 20 pertsonak osatzen dute Institutuko taldea, eta irakaskuntza, ikerketa, sentsibilizazio eta eragin sozialaren bidez zabaltzen du bere lana.

### **LUISA DIETRICH ORTEGA - Gender.Consulting**

<https://www.gender.consulting/>

**Luisa Dietrich** ikertzailea eta aholkularia da ingurune humanitario ahuletan eta gatazken eraginpean daudenetan. Arlo humanitarioan genero-espezialista gisa lan egin du Oxfam Talde Humanitario Globalean larrialdietan Sierra Leonan, Etiopian, Nepalen, Yemenen eta Iraken. Horrez gain, genero-azterketa humanitarioak eta generoari buruzko ikerketa aplikatu espezifikoak egin ditu Nazio Batuetako agentzientzat eta nazioarteko erakundeentzat. Bere interesak genero-justizian eta ikuspegi feministan oinarritzen dira testuinguru humanitarioetan.

Zuzendari eta aholkulari independentea da **Gender.Consulting** erakundean. Honako espezializazio-arlo hauek ditu erakunde horrek: genero-justizia, gatazka eta ahultasuna, erantzun humanitarioa, bake-bitartekaritza eta negoziazioak, desarma, desmobilizazioa eta berrintegrazioa, eta justizia trantsizionala.

### **LAURA MULA GALLEGO - IECAH**

<https://iecah.org/>

**Laura Mula** Institutuko prestakuntza- eta komunikazio-arloko kidea da. Bertan, besteak beste, lineako eta aurrez aurreko prestakuntza-jarduerak antolatu, gauzatu eta garatzeaz eta haien jarraipena egiteaz arduratzen da, bai eta ekintza humanitarioarekin, bakea eraikitzearekin eta hondamendien arriskua murriztearekin lotutako ekitaldiak planifikatu eta bideratzeaz ere. Era berean, erakundearen webgunearen, sare sozialen eta komunikazioen kudeaketa koordinatzen du.

**Gatazkei eta Ekintza Humanitarioari buruzko Azterlanen Institutua** (IECAH) 2000. urtean sortu zen, milurteko berria hastearekin batera, globalizazioak eta haren askotariko aurpegiak eragindako testuinguru aldakor honetan mundu humanitarioari eta bakearen eraikuntzari buruzko eztabaidei ikuspegi berri bat emateko asmoz. Hiru espezializazio-eremu ditu ardatz: Ekintza Humanitarioa (EH), Hondamendien Arriskua Murriztea (HAM) eta Bakea Eraikitzea (BE).

### **Foundation for Health and Social Economic Development Africa (HESED) - Kenya**

<https://www.hesedafricafoundation.org/>

**Eunice Achieng Ngwawe-k** 20 urte baino gehiago daramatza Kenyan eta Sudango hegoaldean tokiko eta nazioarteko laguntza-agentzietan lanean. Bere espezializazio alorrak honako hauek dira: proiektuen plangintza, jarraipena eta ebaluazioa, etxeen azterketa ekonomikoa, partaidetzako ikerketa komunitarioa, enpresen garapena, emaleen koordinazioa, baliabide komunitarioen kudeaketa, osasun hezkuntza komunitarioa eta landa-partaidetzako metodologiak.

Gaur egun, **HESED** fundazioan egiten du lan (Afrikaren Osasun eta Garapen Ekonomiko eta Sozialerako Fundazioa). Irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta 2007an sortu zen. Erakunde horren helburu nagusia da haurrek, emakumeek eta gazte kalteberak eta haien komunitateek dituzten arazoei aurre egitea, osasuna, garapen ekonomikoa eta soziala sustatuz, eta zeharka integratuz genero-berdintasuna, ziber indarkeria, GIB/HIESa, giza eskubideak, bakea finkatzea eta gatazkak konpontzea. HESED África fundazioak hirietako errefuxiatuekin lan egiten du, bai eta Nairobin ezarleku informaletan bizi direnekin ere, haien prestazio-gaitasuna bultzatzeko eta osasunarekin eta garapen ekonomiko eta sozialarekin lotutako gaietan sarbidea izan dezaten sustatzeko.

### **UNICEF – Afrika Erdiko Errepublika**

<https://www.unicef.org/emergencies/crisis-central-african-republic>

**Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsa** (UNICEF) duela 25 urtetik etenik gabe ari da lanean Afrika Erdiko Errepublikan. Denbora horretan, UNICEF RCAk esku hartu du, eta esku hartzen jarraitzen du, bai gatazkaren ondoriozko larrialdi-egoeretan, bai garapen-programetan, haurren eskubideak defendatzeko, haurrentzako etorkizun hobea bermatzeko eta biharko aktore bihurtzeko lanean. Herrialdeko erakunde aliatuekin batera, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) lortzeko lanean ari da. Zehatzago esateko, UNICEF RCAren lanak honako hauek ditu ardatz: immunizazioa, larrialdi-egoeretan hezteak, malnutrizio akutua larriaren tratamendua eta haurrak indarkeriaren eta esplotazioaren aurka babestea.

UNICEFek Afrika Erdiko Errepublikan duen taldea 200 lagunek baino gehiagok osatzen dute, eta gatazka armatuetan haurren babesa nola landu jakiteko aurrez prestatutako profesional-talde bat du. Talde hori 6 bulegotan banatzen da herrialdeko beste hainbeste eskualdetan.

### **Servicio Jesuita para Migrantes (SJM) - Costa Rica**

<https://jesuitascam.org/servicio-jesuita-para-migrantes-costa-rica/>

**Adam Álvarez Calderón** Ekintza Humanitarioko eta Inklusioko Programen zuzendaria da, eta estrategikoki koordinatzen ditu taldearen lana eta zuzeneko laguntzako proiektuen ezarpena, gaitasunak indartzeko eta lagundutako pertsonen enplegarritasuna eta diru-sarreraren sorrera bultzatzeko. Gaur egun, erakundeko zuzendaria da.

**Servicio Jesuita para Migrantes Costa Rica**, "Red Jesuita con Migrantes Centroamérica" sarearen barnean dago, eta 2004an ekin zion ezinbestean migratu behar izan duten eta zaurgarritasun egoera larriari egoteagatik nazioarteko babesa behar duten pertsonen laguntzako lanari. Erakundeak laguntza humanitarioa, soziojuridikoa, eskubideak eskuratzeko eta pertsonen gaitasunak indartzeko prestakuntza prozesuak bultzatzen ditu. Komunikazioko eta eragin sozial eta politikoko ekimenak bultzatzeaz gain, giza eskubideen, genero-justiziaren eta inklusio sozial, ekonomiko eta kulturalaren ikuspegitik egiten du lan.

## Asociación de Apoyo al Desarrollo, APOYAR - Kolonbia

<https://apoyar.org/>

**APOYAR** irabazi-asmorik gabeko gobernuz kanpoko erakundea da, eta 2001ean sortu zen itxaropenaren aldeko apustu gisa gure lurraldeko une kritiko batean. Uste sendoa dugu harreman baztertzailak eraldatu nahi ditugula eta haien lekuan elkarreragin demokratikoagoak eta berdintasunezkoagoak izan. Aintzat hartzen ditugu pertsonen eta komunitateen berezko eta antzinako jakintzak. Ziur gaude komunitateekin etikan, errespetuan, besteen onarpenean, aniztasunean, jakintzen elkarrizketan eta harreman gardenetan oinarrituta egindako lanak indartu eta garatu egiten dituela bizitza ona lortzeko giza gaitasunak. Gure helburua da giza gaitasunak indartzea, gizarte bidezkoagoa, anitzagoa eta berdintasunezkoagoa eraikitzeko.

## The Popular Aid for Relief and Development (PARD) - Libano

<https://pard-lb.org/>

**Rita Hamdan**, PARD erakundeko zuzendari nagusia, Libanon errefuxiatu palestinarra da eta PARD erakundearen sortzaileetako bat. Aktibista da eta giza eskubideen defendatzailea, bereziki emakumeen eta errefuxiatu palestinarren eskubideena. Zeregin aktiboa du tokiko GKEen alorrean, eta Saidako GKEen plataformako eta Palestinako GKEen plataformako kide da Libanon.

**PARD** oinarri independenteko erakundea da, eta eskubideen ikuspegitik lan egiten du, genero-justizia eta talde baztertuen eta kalteberen eskubideak sustatuz, batez ere Palestinako ezarleku informaletan, gizarte-, osasun- eta ingurumen-zerbitzuak eskuratzeko. Elkarlanean jarduten du tokiko nahiz nazioarteko erakunde ugariarekin.

## UNRWA - Libano

<https://www.unrwa.org/where-we-work/lebanon>

**Ekialde Hurbileko Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia** (UNRWA) 1949an sortu zen, lehen gerra arabiar-israeldarraren biktima izan ziren 720.000 palestinar baino gehiagori laguntza emateko. 70 urte baino gehiago igaro ondoren, Garapen eta Laguntza Humanitarioko programak eskaintzen dizkie 5,7 milioi pertsonari baino gehiagori Jordanian, Libanon, Sirian, Zisjordanian eta Gazako zerrendan (Palestinako lurralde okupatua), hezkuntza, osasun eta gizarte-zerbitzuak, mikro finantzaketa, aterpea, giza eskubideen babesa eta larrialdiko erantzuna emanez. Libanon, Palestinako 260.000 errefuxiatu eta Palestinako Siriar jatorriko 29.000 errefuxiatu ditu UNRWAK. Dauden 10 kanpalekuetan bizi dira biztanle gehienak, baina baita kanpamentuetatik hurbil dauden ezarleku prekarioetan ere.

## Agricultural Development Association (PARC) - Palestina

<http://www.pal-arc.org/>

**Tamador Akel-ek** PARC erakundean lan egiten du 2017az geroztik, ekintza humanitarioetarako proiektuen koordinatzaile gisa. Erakunde horren ordezkaria da *International Land collation* (ILC) sarean. Nazioarteko sare horrek barne hartzen du MENA eskualdea (Ekialde Ertaineko eskualdea eta Afrikako iparraldea), eta lurrekin eta emakumeen

eskubideekin zerikusia duten gaiez arduratzen da. Era berean, erakundearen ordezkaria da OCHA (Gai Humanitarioak Koordinatzeko NBEren Bulegoa) taldean, elikagaien segurtasunari eta babesari buruzkoa.

**Nekazaritzaren Garapenerako Palestinako Elkarte** (PARC), tokiko beste bi erakunderekin batera (PSCCW eta PHG), ekintza humanitarioetan tokian erantzuna emateko ekintza-talde baten barnean dago, sektore anitzeko ikuspegiarekin lan eginez betiere.

### **The Union of Palestinian Women Committees (UPWC) - Palestina**

<http://www.upwc.ps>

**Palestinako Emakumeen Komiteen Batasuna** (UPWC) 1980an sortu zen emakume palestinarrek ahalduzko eta Palestina askatzeko borroka nazionalean laguntzeko. Gazako eta Ramallahko gobernazioetako gizarte- eta kultura-komiteen bidez hasi zen lanean, emakumeak egoera soziopolitikoaren inguruan informatzeko eta hezteko, eremu publikoan parte har dezaten sustatzeko. Handik bi urtera, bazituen komite aktiboak Gazako eta Zisjordaniako hiri nagusi guztietan. Komite horiek gaur egun egiten duten lanak 6.000 emakume inguruko oinarri sozialari eragiten dio lurralde osoan, eta elkarrizketarako eta koordinaziorako gune ugari eskaintzen dituzte, ez bakarrik emakumeen artean, baita beste lurralde-erakunde eta lurralde-entitate batzuekin ere. Gaur egun, UPWC emakumeen erakunde aurrerakoa da, eta haren misioak eta ikuspegiak zuzeneko lotura dute bai emakume palestinarren mugimendu feministarekin, bai Palestinako nazio-askapenerako mugimenduekin. Ikuspegi horren ardatza da oinarri komunitarioko gizarte zibil aurrerakoi eta demokratikoa eraikitzea, inolako diskriminaziorik gabe eta emakumeen eskubideen errespetuan oinarrituta. Erakundearen misioa edo zeregina da emakume palestinarrek ahalduzko borroka egitea, haien inguruabarrak eraldatu daitezkeen, genero-berdintasuna eta klase-berdintasuna lortzeko, tokiko legeetan emakumeen oinarritzko eskubideak aintzatezteko eta Israelen legez kanpoko okupazioa amaitzeko.

### **Irantzu Mendia Azkue - Hegoa Institutua (UPV/EHU)**

<https://www.hegoa.ehu.eus/>

**Irantzu Mendia Azkue** UPV/EHUko Soziologia eta Gizarte Laguntza Saileko irakaslea da, Hegoa institutuko zuzendaria eta ikertzailea, Giza Segurtasunari, Tokiko Giza Garapenari eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Ikerketa Taldean. Bere lana gatazka armatuen azterketa feministan, bakearen eraikuntzan, justizia trantsizionalean eta memoria historikoan oinarritzen da, El Salvador, Bosnia-Herzegovina, Guatemala, Kolonbia eta Mendebaldeko Saharako bezalako esperientziak aintzat hartuta.

### **UPV/EHUko Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikerketa Institutua**

(Hegoa) giza garapena eta nazioarteko lankidetzeta sustatzen ditu, honako ekarpen hauen bidez: ikerketa eta analisia, informazio- eta dokumentazio-baliabideak, unibertsitateko prestakuntza, lankidetzaren gizarte-sarea indartzeko gaitasunak sortzea, eta erakunde eta instituzio publikoei aholkularitza teknikoak ematea. Bere helburua da aldaketa sozialean eragitea, pentsamendu kritikotik abiatuta giza garapenerako eta lankidetzeta eraldatzaileko esparru teorikoak, prozesuak eta estrategia alternatiboak eraikiz, proposatuz eta aplikatuz.

## SÖKOLÉ Ritmos & Experiencias

**Sökolé** kolektiboak pertsonekin lan egiten du gizarte-berrikuntzako prozesuen bidez, gizarteak dituen erronkei erreparatuz eta konponbideak planteatuz musika-hezkuntzako ekintzak bultzatuta, zehazki Afrikako perkusioaren bitartez. Diziplina hori garatzeko etengabeko interesaren, aldaketa sozialarekiko konpromisoaren eta perkusioaren bidez pertsonekin lanean 10 urte baino gehiagoko esperientziaren ondorio da proiektua.

Sökoléren iritziz, oso lan-tresna ahaltsua da perkusioa eta onura izugarriak ditu, eta, beraz, mekanismo ezin hobea da oso testuinguru desberdinetan jarduerak garatzeko. Perkusioak, hainbat kolektibo eta/edo talderekin lan egitea errazteaz gain, zeharkako gaiak lantzeko aukera ematen du. Jarduerari metodologia parte-hartzailea eta ludikoa ematen zaionez, askoz ere txikiagoak dira gai jakin batzuk lantzeko erresistentziak.

Jarduerak berdintasun-printzipioaren arabera garatzen dituzte, eta horrek aukera ematen du klaseko, generoko eta beste arlo batzuetako estereotipoak eta rolak alde batera uzteko, espazio propioa sortzen lagunduz, norberaren gaitasunez eta taldean gara daitezkeen gaitasunez jabetzeko.

### ELENA CARRIEDO

<https://elenacarriedo.com/>

**Elena Carriedo** diseinuan aditua da, eta hainbat prestakuntza ditu: Pertsonen eta Taldeen Coacha, Lidergoan aditua eta Berdintasuneko agentea. Aldaketa-eragile freelance gisa duen proposamen profesionalaren helburua da pertsoneri eta taldeei laguntzea erakundearen errealitatea eraldatzeko bidean. Talentua garatzen laguntzen du, hainbat tresnaren bidez.

**Ikusizko Aktak** oso tresna erabilgarriak dira, eta gero eta hedatuago daude erakundeetan berrikuntza-proiektuak, partaidetza-prozesuak, plangintza eta komunikazioa sortzeko eta garatzeko. Graphic Recording metodologiaren edo erregistro grafikoaren bidez, ideiak eta informazioa bildu nahi dira adierazi ahala. Grafikoen tamaina handiak agerian uzten ditu ideiak, eta jardunaldien edukia eta ibilbidea islatzen ditu. Akta grafikoek informazioa modu hartzaile eta berritzailean erregistratzeko eta gogoratzeko balio dute. Gainera, bertan izan ez diren pertsoneri jardunaldien mamiaren berri emateko erabil daitezke sortutako irudiak (posta elektronikoz, sare sozialen bidez, web bidez, etab.).

### LAPIKO

<https://lapikocatering.com/>

Lapiko Catering gizarteratzeko enpresa bat da, pertsonekin, ingurumenarekin eta garapen iraunkorarekin konprometitua, Cáritas Bizkaia eta Peñasal S Coop-ek sustatua. Bere misioa gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonak gizartean eta lanean txertatzea da errentagarritasun soziala eta iraunkortasun ekonomikoa sortzen duen proiektu baten bidez, pertsonaren zentralitatean oinarritua, azken helburua gisa. Elikadura osasungarria eta kalitatezkoa eskaintzen du, sasoiko tokiko produktuekin, Km0 produktuekin eta Bidezko Merkataritzarekin egina.